

Kontsumo alternatiboaren aroa: Arabako campusean kontsumo agroekologikoko talde bat garatzeari buruzko kasua


Oihane Cerezo Martín

2020/06/11





HELBURUAK



Arabako campusak jorratutako ekimen ezberdinak ikertu, eta bereziki, kontsumo agroekologikoko talde bat sortzearen ideia aurrera eraman ahal eta, hau arrakastatsua eta onuragarria izango baldin baden aztertzea

Helburu nagusia

Gaur egun astintzen gaituen kontsumo masiboaren jatorria eta, baita ere, egoera hori sortzera eragin zuten faktore erabakigarriak ezagutzea

1. Azpi helburua

Kontsumismoari aurre egiteko garatu diren kontsumo-aukerak aztertu eta kontsumo-talde zein -kooperatiben oinarri nagusia (agroekologia) ikertzea

2. Azpi helburua

Kontsumo ekologiko, solidario eta alternatiboarekin gure lurraldearen gaur egungo inplikazioa ezagutzeko asmoz, Espainiako kontsumo agroekologikoko talde eta kooperatibei buruzko datu, testigantza eta azterlan zehatzak lortzea

3. Azpi helburua

Ekonomia zein ingurumenari egindako onurak ezagutzeko asmoz, bereziki Euskal Herriko sare eta talde agroekologikoak identifikatu eta aztertzea

4. Azpi helburua

- Gure sozietatea behin eta berriz errepikatutako ekoiztu, erosi eta kontsumitzearen joeran murgilduta dago
- II. Mundu Gerratik kontsumo masibo batean murgilduta gaude, non enpresek marketing eta publizitatean etengabeko inbertsioak egiten ditzuzten egoera horrela jarraitu dezan
- Hori dela eta, kontsumitu eta zoriontsuak izatea elkar harremana duten bi termino direla pentsarazi egin digute
- Ekoizpen eta kontsumo arduragabeak sortu dute, beste gauza askoren artean, janaria alferrik galtzea, jende askorengan gehiegizko pisua izatea, baliabide naturalen erabilera ez-eraginkorra....



- Kontsumo modu berriak, hala nola kontsumo agroekologikoa
- Ideia berri horien artean, kontsumo agroekologikoko taldeek eta kooperatibek garrantzi handia hartu dute, azkenean, metodo ezagunenak bihurtuz
- Espainian 170 kontsumo talde agroekologiko baino gehiago daude
- Euskal Herriaren erabateko konpromisoa, sare agroekologikoak dituen lurralde bakarra izanik



ONDORIOAK



ARABAKO CAMPUSAREN EGOERA

- Nahiz eta COVID-19aren egoerak hainbat ekimen egiteko aukera geldiarazi egin dituen, Arabako campusak, unibertsitate ezberdineko ikasleek elikagai ekologikoak kontsumitzeko ohitura jasangarriei buruzko ezagutza eta, unibertsitateko komunitatearen artean tokiko elikagai ekologikoak eskuratzen laguntzearen ideiarekin aurrera jarraitzen du.
- Kontuan hartuta Sarekoren (sare agroekologikoa) eta hainbat irakasle eta ikasleren aurretiko jarrera, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoak hartzen ari dituen ohitura onak eta proiektu horietan duen gogo eta ahalegin aparta, zalantzarik gabe, kontsumo-taldearekin jarraitzea eta egindako azoka agroekologiko bezalako jarduerekin apustu egiten jarraitzea posible da .

Bizia Lab-i esker horrelako lan bat garatu ahal izateak, zalantzarik gabe, ingurumenari, kontsumo arduratsuari eta, oro har, gure planetari buruzko etengabeko ikaskuntza bat ekarri dit. Horrelako gai garrantzitsu eta nabarmen bat aztertzeak, jasangarritasunarekiko interes handiagoa izatea lortu, nire bizitzan beste kontsumo metodo batzuk bilatu izatea, eta, garrantzitsuena, ikertu dudan gaiari leial izanik, ekoizpen eta kontsumo arduratsua lortzearen pentsamendu hau beste jende batzuei transmititzen saiatzea bezalako ekarpenak eman dizkit.

